

MOTZAK MARIBI AGIRREGOMEZKORTA ELGOIBARKO ALKATE BERRIA
GEHIGARRIA GAZTIA NAIZ BARREN · KIROLA NAHASTE BORRASTE HILAREN 27AN

Barren

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ATEKARIA | A 2002ko ekainaren 20a/XI. urtea/430. zkia



ITXAROPENA ABESBATZAREN 10. URTEURRENA

Itxaropenarekin... 10 urte gehiago?

"KANTUTAN ASI EZKERO, ATZENIK EZ" (esatera zaharra)

ZEZEN-B DE



1Koixerako teorikoa 11 urfe befe baino lehen Olbra deZablij

Ordenagailu bi ez teoria ikaster(o gela berna



ORDUTEGIA


1 0:00etati k-12:30era

1 5:00etati k-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 20600 EIBAR

40 URTE 40 ISTORIO

f; ELGOIBARKO IZARRA



22 **TEXILIBAKIO** aldizkaria

Akaso askok ez duzue jakingo baina Elgoibarren izan zen herri aldizkari bat **BARREN**en aurretik. **TXITXILIBAKIO** zuen izena eta Elgoibarko Izarra Elkartek sortu zuen 1987an.

Txitxilibakio gizon behartsua zen, Elgoibarrera noizean behin etortzen zena. Itxura bitxia zuen gizonak eta "Txitxilibakio etorriko da!" esanez beldurtzen zituzten orduko gurasoek beraien seme-alabak.

Bada, gizon xeble honen izena hartu zuen Elgoibarko Izarrak argitara atera zuen lehen aldizkariak. Xeblea, ezta? Aldizkari sinplea zen, batere konplikaziorik ez zuena. Izan ere, sasoi hartan ez zegoen gaur egun dagoen mediorik aldizkari bat egiteko. Jakin dugunez, Elkartearen bueltan zebiltzan hiru-lau laguneren artean egiten zuten aldizkari osoa. Dena eskuz egiten zuten eta orri guztiak ondo "montatuta" eramanez behar izaten zituzten inprentara fotolitoak atera eta aldizkaria egiteko.

Jendeari euskaraz irakurtzeko aukera emateko zen Elgoibarko Izarraren helburua. 32 orri zituen aldizkariak eta erreportajeak, artikuluak, komikiak, elkarrizketak eta antzerakoak ikus eta irakur zitezkeen bertan.

Txitxilibakio ahal zenean ateratzen zuten, *noizbehinkaria* zela esan dezakegu. Eta **BARREN** ez bezala, ordaindu egin behar zen, 100 pezeta. Tabernetan, okindegietan eta ikastetxeetan izaten ziren nahi zuenak erosteko.

Baina **Txitxilibakio**ki ez zuen asko iraun. Lan handia zen kondizio haietan egiteko eta 1991ko uztailean argitaratu zen azken alea. **Txitxilibakio** desagertu eta urtebetera etorriko zen **BARREN**.

*Sebas Larrafiaga, Thasio Garmendia eta
Imanol Larrañaga*

iritzia



fila behar al duzu?

Gogorra da futbolzaleen bizitza: gure hondartzetan olatuak gora eta behera dabilten bezala, beraien animoak astetik astera gora eta behera dabilten, beraien talde maiteak egin duenaren arabera.

Baina errealtzaleak urte askotan behera eta behera ibili ondoren eta azkenengoan ufffff, "eutsi diogu" esatetik, aurtan gora eta gora eta **ene** bada, gorenen egoteko aukera izatera iritsi dira: zer da ba hau, ilusioa, emozioa, gorakada!

Nere etxe parean tilondoak loratan daude, bete-beteak: nahikoa lirareteke errealtzale guztien urduritasuna lasaitzeko?

Baina, ez da lasaitasuna nahi duguna, ez, emozioa, ikara, salto egiteko gogo baizik!

Tamalez, joan den igandekoa olatuaren beherakada izan zen... denok demaseko poztasunezko deidarrak egiteko grinez eztanda egin beharrean eta 00000h! globoak hustuta bezala etxera joan behar ere! Baina, olatuak behera egin ondoren badaki gora egiten eta ez ote da bada datorren igandekoa behin-betikoa izango?

Errealtzaleak, ordea, ez daude bakarrik mundu honetan, Athletikoak ere baditugu, beraien urtea horrelan-horrelan izan bada ere, horra hor, Errealaren etorkizunean zerikusirik izan dezaketen zuri-gorriak! Kasualitatea hori ere... Alaaaaa, emozio gehiago!

Nere etxeko tilondoarekin ez dugu nahikoa izango eta farmaziak ere nerbioetarako pilula gabe geldituko dira martxa honetan. Bizi ditzagun datozen emozioak eta gora Athletic eta gora Errealala!

Edurne Bilbao

Kexak	5
motz MOtZ	8
gehigarria	11
ki ROI AK	20
a Genda	25

Begi ezkutua

Hain bakarrik



Gau bateko ekaitz iluneko haize hotzak izozten zituen nire sentimenduak, bitartean ni izarrei begira nengoen eta dena xuxurlatu nion haizeari, baina dena hotza zen, bakarrik eta betilun.

Bapatean brisa epel bat sentitu nuen, eguzkia irtetzen ari zen, eta hainbeste konfusio artean nire sentimenduak atera ziren eta haren eguzkiak ematen zidan argitasunak maitemindu ninduen nahigabe. Eguzki ura zeu zinen eta egun hartatik piztu zenuen zure sua nire bihotzean. Itxaropenekoa eta maitasunekoa, egun harez gero zugar bakarrik pentsa dezaket, zeu zarelako nire ametsetako neska.

Joseba Quintas
(13 urte)

ESKERRIK ASKO

Nagusien danborradako antolakuntzatik honakoak eskertu nahi ditugu eskaini diguten laguntzarengatik: Udaleko Kultura Saila, Udal Musika Banda, I. Bereziartua Musika Eskola, Brigada, Udaltzaingoa, Pilar Ikastetxea, Loli Rodriguez, Gorosabel Elektrizitatea, Jokin Iriondo eta Sigma Jatetxea. Besterik gabe, datorren urtean ere danbor hotsak herrian izan ditzagun saiatuko gara.

A.A.

15.397.154-B

MILA ESKER GUZTIOI

Kaixo: eskerrik beroenak eman nahi duskizuegu joan zen larunbatean Dirtsurf Txapelketa antolatzen lagundu ziguten guztiei. Txartelean agertzen zareten guztioi, baita Juanma Arceri, Jose Juan eta Carloseri, Iriondo tabema eta Lojantziri, Kurutzeta Tabemako Iñaki, Tere eta familia guztiari, baserritarrei, Robertori eta orokorrean Elgoibarko denda, taberna eta hiritar guztioi.

Ezin ahaztu errepidean, istripuren bat pasa ez zedin, egon zen jende guztiari. Izenak asko dira eta barkatu bat edo beste ahazten ba ditugu. Eta noski beti bezala gure familiakoei beraien bultzada eta laguntzarik gabe ezinezkoa izango bailitzake txapelketa hau antolatzea. Mila esker guztioi.

Kurutz Castrillejo
Devilsurf.com-en izenean

ASTEKARIA

BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
. 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILA
F.Motharko Izarra

LAGUNTZAILA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILA Ainhua Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Uxue Alberdi PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli URIGUEN KOLABORATZAILAK Jasone Osoro, Ainhua Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Maninez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARKO IZARRA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

kutxa
zuri esker

4/DANOBAT
HUIÑAS MEP-MIFNTA

4 GOITI
GRUPO DANOBAT

wit141



* Neska batek esan digenez, **BARREN** aurrean dagoen pila kontenedorea oso leku txarrean dago: "Askotan pila ontzia puskatzen dute eta pilak lurrean botata egoten dira. Horietako asko errekara dihoan alkantarilara erortzen dira, horrek suposatzen duen kutsadurarekin. Pila kontenedorea beste leku batean jartzea komeni da".

* Herritar batek esan digenez, jendeak ez ditu oinezkoen guneak errespetatzen, eta kotxeak bertan aparkatzen dituzte: "Larunbat goizetan San Frantzisko kalean ezin da ibili ere, egin. Portal aurrean aparkatzen dute kotxea, eta umeen edo erosketa karroarekin ezin izaten dugu etxera sartu. Jendea oso alperra da, eta ezin dute ogia erostera oinez joan. Debekatuta egon beharko litzateke, benetan beharrezkoa ez bada behintzat, herriko kaleetan kotxez ibiltzea. Kotxeak erreperidera eta oinezkoak kalera!".




Herritar batek esan digenez, Trinitate jaiak gero eta eskasagoak dira: "Trinitate bezperan, tanborradaren ostian urtero dantzaldixa egoten da Plaza Haundixan, eta aurten ez da ezer egon. Dantzaldixak eitxeko ohituria mantentzeko modu bat da, eta hola jarraituz ohitura hori desagertu egingo da. Trinitate jaiak gero eta eskasauak dira!".

* Emakume batek Haizea Emakume Taldea txalotu nahi du: "Gernika, Mundaka eta Bermeorako irteera antolatu zuten joan zen ekainaren 8an, eta dena oso ondo atera zen. Jarraitu honela!"

* Guraso batzuk, Pilar Ikastetxea txalotu nahi dute, San Biatorren 100. urteurrenerako antolatu dituzten ekintzengatik: "Eskubaloia, saskibaloia eta xake txapelketan ibili dira; Elgoibarko ikasleak Gasteizen, Valladoliden eta Madrilen izan dira. Harreman oso onak egin dituzte, eta esperientzia oso polita izan da".

Barrak, Birkak eta Barreak



ITXAROPENA 48ESBATZAK

””””

””””

””””

1992. urtean sortu zen Itxaropena Abesbatza eta orclufik, zaihasunak zaikasun, 10 urte pasatu dira. Kanitunko zaletasunak izen diftr. 13afzuk badifuzte musika ikasketak, instrumenturen bat jotz, en ere baciakite beste bafzuk, baina baciaude sekula musika ikasi ez dutenak ere. HOli bai, abestea denek dute gusfuko, eta horrek mantendu clitu bizirik. Takie bdkia da, jende fakan daude, baina hala ere, beste 10 urlez kantuan jarraitzeko gogorik eta ilusiorik ez zaie faha.

● txaropena Abesbatza 18 lagunek osatzen dute; 11 emakume eta 7 gizonezko. 4 ahots desberdin daude: Sopranoa, altoa, tenorea eta bajoa. Esan digutenez, momentu onenean 34 lagun izatera ere iritsi ziren, baina orain jende falta larria daukate: "Oso talde txikia daukagu, 18 lagun inguruk osatzen dugu Abesbatza, eta zailtasun handiak izaten ditugu abestiak gure ezaugarrietara moldatzeko". Elgoibartarrak koroan parte hartzera animatu nahi dituzte: "Ez da ezer berezirik behar, kanturako gogoia, belarri apur bat eta entsaioetara etortzearekin nahikoa da. Giro ona dago gure artean, eta jende berria ezagutzeko aukera ezin hobea da".

URTARRILEAN PARISERA

Itxaropena Abesbatza ez da Euskal Herriatik kanpora askotan irten, baina

Bilbo Hiriaren 700. urteurrenean eman zuten kontzertutik oroitzapen oso onak dituzte.

Austria eta Frantzia aldean izan dira behin baino gehiagotan: "Europa Iparraldeko estatuetan dauden koroak

oso onak dira. Austrian txanpinoiak bezala sortzen dira koroak. Ikusgarria da". Hala ere, gogoan daukaten kontzertu bat Bilbo Hiriaren 700. urteurrenekoa da: "San Mamesen abestu genuen, jende ugari bildu zen, eta kalean ere aritu ginen kantuan. Oso egun polita izan zen". Itxaropena Abesbatzaren 5. urteurrenean Plaza Handian eskaintako kontzertutik ere, oroitzapen oso ona daukate. Hala ere, anekdota graziosoak ere bizi izan dituzte: "Donostiara joan ginen baten, Konpositore lehiaketa batean parte hartu zuen gizon batek egindako konposizioa abestu behar izan genuen. Asko entsaiatu genuen arren, pieza hura ezin zen abestu".

HISTORIA LABURRA

Jende gazteak osatzen du gaur egun Itxaropena Abesbatza, baina beraien artean, badira bi veterano. Jose Mari Etxanizek eta Martin Garagarzak 10 urte daramatzate koroan abesten, eta beraien kontaktu digute nola sortu zen Itxaropena: "1992. urtean Parrokiako Koruko zuzendaria zenari, Felix Lodosori, bihotzeko gaixotasun bat aurkitu zioten, eta utzi egin behar izan zuen. Orduan zuzendari berriaren bila hasi ginen, eta Azpeitiko Nerea Ugarte etorri zen gure artera. Koroak orduan, elizako abestiak kantatzeari utzi zion, jende berria sartu zen korora eta denetarik kantatzen hasi zen. Izen desberdinak zeuden aukeran, eta Itxaropena izan jendeari gehien gustatu zitzaiona, "az, iztri holl jarri gdfllion".

1995. urtean Nerea Ugartek taldea utzi zuen, eta Silvia Hernandez elgoibartarrak, l

hartu zuen taldearen agintea. Gaur egun, Judith Murcia da Itxaropena Abesbatzako zuzendaria. Oraindik gaztea da, zuzendari kurtsoak egiten ari da, baina oso ondo moldatzen dela azaldu digute. Zuzendariaren lana ez da erraza, eta abesti bat jende aurrean abestu aurretik lan handia egir behar da. Judithek berak azaldu digu prozesua: "Partitura bat bilatu eta aukeratu behar da lehenengo, ondoren, irakurri, letrak ikasi, rhatizik moldatu... gutxi gora behera bi ulithete behar izaten ditugu abesti bat onder Rimatze".



10 urte kantu kantari ibiltzeak ez dauka meritu makala. Taldeko bi veteranoek kontatu diguten moduan, beraientzat ez da gogorra izan: "Bizitzako errutina monotonoa aldatzeko modua izan da. Jendea ezagutu, abestu, eta, eguneroko aspergarri ijijde batera uzteko auke wernaten du koroak".



BETE DITU



Datorren urteko urtarrilean Parisen egingo den koroen topaketan abesteko gonbidapena jaso dute. Bilerak izan dute dagoeneko, eta 30 koro desberdinetako kideak bildu ziren bertan. Pariseko eliza baten ospatuko da kontzertua, eta Estatuen Arteko Tolerantziaren alde izango da. Ez dakite oraindik joan ahal izango diren, dirua behar dute, eta jendea, baina Soraluzeko koroarekin elkartzea izan daiteke aukera bat.

**"Jende falta larria daukagu
eta elgoibartar guztiak
animatu nahi ditugu
abesbatzan parte hartzera"**

Momentuz, Herriko Antzokian eskainiko dute kontzertua gaur. Jende gaztea kontzertua ikustera joatea da beraien helburua: "Beti elizan eskaintzen ditugu kontzertuak eta ez gara gazteengana iristen. Herriko Antzokira etortzen badira, agian koroan parte hartzera animatuko dira". Beraz, gaur gaueko 22:15etan Itxaropenak X. urteurreneko kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian.

urteurreneko ospakizun kontzertua

Elgoibarko Itxaropena Abesbatza eta Soraluzeko Ezoziko Ama Abesbatza

Ekainak 20 ostirala, 22:15etan

Herriko Antzokian

Itxaropena

jinlandia Hyvni 7. 9idellys
9acinto ebiciana 71. piaggola
Szello 2mg Tavol Eajos eardos
Lullaby (Kamourite)
- The dyne of tosa
- Soran song of Hokkaido (Socen easbi)

Txanton Piperrri 13 Zafirain
The lion sleeps tonight Dominguez

Zuzendaria: Judith illurcla

Ezoziko Ama

De colores se visteri los campos L rayter
Nerea izango zen 7 ensto
Maite Sorozabal
91unabarra Moco-roa
Shenandoah 9arnes Erb
Days of wine and roses Mancini

Zuzendaria: Silvia Hernandez

ng .40E56.4T2AK n, dT.ER.4

What a wonderful world G. Weissn Thiele
Over the rainbow H Arlen
The somnd of music koagers
Unchained melody 741ex North
We go together Ed Lojeshi
Vesterday Lennon1P. Mcearthey
say a little prayer for you e eacharach
eohernian kbapsody 9readie Inlrcury

Gitarra Elektrikoa: Ander Mujika

Bajua: Aitor Rosario

Perkusioa: Elur Arrieta

Pianojolea: Mertxe Aizpunia

Maribi Agirregomezkorta EAJ-EA koalizioko zerrendaburua aukeratu zuten Elgoibarko Alkate 12 botorekin

Plenoa Einbiou Herri Plataformako kideen protesta artean egin zen

EAJ-EA koalizioko 12 botorekin, Maribi Agirregomezkorta aukeratu zuten Elgoibarko alkate joan zen ekainaren 14an ospatu zen Udal Plenoan. Honela, bera izango da Elgoibarko lehenengo emakumezko alkatea. Gainontzeko alderdi politikoetako hautagaiek, beraien zerrendaburuari eman zioten botoa. Hortaz, Ovidio Campellok (PSE-EE) bi boto jaso zituen, Iñigo Arkauzek (PP) beste bi, eta Igor Irigoienek (IU) boto bakarra.


Istilua plenoan

Einbiouko kideen protesta eta garraxi artean garatu zen plenoa. EAJ-EA koalizioari ezker abertzaleari botoak lapurtu izana eragotzi zieten, eta maiatzaren 25eko Udal Hauteskundeak "putxerazoa" izan zirela oihukatzen zuten behin eta berriro.

Plenoaren hasieran Einbiouko kideek hartu zuten hitza beraien ilegalizazioa eta



Aitor



Ezkerreko argazkian alkate berria eta Udala osatuko duten zinegotziak. Eskumako argazkian Einbiou Plataformako kideei botoa ematea eragotzi zieten unea.

Elgoibarko bigarren indar politikoa izanik, udaletxean errepresentaziorik ez izatea salatzen. Une honetan, publikoan zeuden batzuk "Demokrazia Euskal Herriarentzat", "EAJ-EA Espainiaren morroi" eta "Putxerazorik ez" jartzen zuten kartelak altxatu zituzten, protesta oihu artean.

Tentsio handiena botoa ematerakoan

Einbiouko Herri Plataformako kideek mahaian jartzeko aukera izan zuten, baina

botoa emateko altxatu zirenean, Udaltzainek bidea oztopatu zieten. Einbiouko beste kide batzuk ere parte hartu zuten borroka txiki horretan, baina berehala baretu zen kontua eta gainontzekoek botoa ematen jarraitu zuten. Azkenean, gehiengo osoarekin Maribi Agirregomezkorta izan zen aukeratu. Berak esan zuenez, hilabete amaierarako Udala osatua eta kargu banaketak eginda izatea espero du.

Debegesak eta Mondragon Unibertsitateak Debabarreneko enpresa-unibertsitate elkarlana bultzatzeko hitzarmena sinatu dute

Debegesak ikasleen praktikak eta proiektuak ahalbidetuko ditu



Debegesako Zuzendari Orokorra Juan Angel Balbds eta Jose Luis Abaunz Mondragon Unibertsitateko Enpresaritza Fakultateko Dekanoa.

Toan zen ekainaren 17an, Debegesako **J** Zuzendari Orokorra den Juan Angel Balbds eta Jose Luis Abaunz Mondragon Unibertsitateko Enpresaritza Fakultateko Dekanoak, Debabarrenean unibertsitate eta enpresa munduaren arteko kolaborazio-hitzarmena sinatu zuten.

2002-2003 ikasturtean Gestio Eskolan "Administrazio eta Enpresa Zuzendaritza Lizentziatura" ikasketen lehenengo zikloa jarri da martxan, Mondragon Unibertsitateko Enpresaritza Fakultatearen titularitzapean. Titulazio

hau indartzeko helburuarekin, Gestio Eskolak eta Mondragon Unibertsitateko Enpresaritza Fakultateak elkarlanean koordinatuko dituzte ikasleek enpresetan egin beharreko praktikak eta karrera amaierako proiektua.

Debegesak kolaborazio hau bultzatuko du, ikasleek lizentziatura amaierako proiektua bertan, edo bere baitan dauden enpresetan egin dezaten. Era berean, Gestio Eskolan gradu ondoko ikasketak egin dituztenek proiektua edo enpresa praktikak bertan egon ahal izango dituzte.



Uxue Alberdik 2 sari irabazi ditu bertsolaritza eta literatura alorrean

Uxue Alberdik 2 sari jaso berri ditu: Eibarko Hiria Gazteen VIII. Ipuin Lehiaketan bata, eta Durangoko Julene Azpeitia Literatur eta Bertso-paper Lehiaketan bestea. Bietan lehenengo saria irabazi du. Eibarko Hiria lehiaketan, 6 eta 12 orrialde arteko ipuin bat idatzi behar zen. Uxuek hirukote baten artekomaitasun harremana hartu zuen gaitzat, eta lehenengo saria jaso du 25 urtera arteko kategorian. Durangoko Julene Azpeitia lehiaketan, bertso-paperen sailean hartu zuen parte. "Erdi bana" izenburupean, 8 bertso idatzi zituen Uxuek, eta hemen ere, lehenengo saria jaso du nagusien kategorian. Zorionak!

Barnetegietan euskara ikasteko dirulaguntzak


Barnetegi batean euskara ikasteak suposatzen duen gastua kontutan izanik, Elgoibarko Udalak urtero ematen dituen dirulaguntzen berri eman nahi dizue.

Barnetegiko egonaldiaren gastu osoaren %40a (gehienez 180 euro) ordaintzeko dirulaguntza emango die Udalak ikasle eta langabetuei, barnetegiko gastua 600 eurotik beherakoa denean. Gastua 600 eurotik gorakoa den kasuetan, Udal Euskara Batzordeak, kasuan kasuko azterketa egin ondoren, erabakiko du zer nolako laguntza eman, baina dirulaguntza ezingo da behin ere ez heren bat baino gehiagokoa izan.

Dirulaguntza horri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzura joan (Kultur Etxeko 1. pisuan) edota telefono zenbaki honetara deitu daiteke goizez: 943 74 43 66.

BARREN-ek 2003-2004ko Gida kaleratuko du

BARREN astekariak, aldizkariarekin batera 2003-2004 urteko gida banatuko du aste honetan. Liburuskatuek bi atal izango ditu: alde batetik, Elgoibarko enpresa eta komertzio guztien telefonoak azalduko dira, lanbide motaren arabera sailkatuta. Bigarren atalean, Elgoibarko etxetako telefonoak aurkitu ahal izango ditu erabiltzaileak, norberaren abizenaren lehenengo hizkiaren arabera sailkatuta.



Bihar, zapatua, kaleratuko da estreinakoz Berria egunkaria

Otsailean itxiarazi zuten Euskaldunon Egunkaria eta bihar, zapatua, ikusiko du argia egunkari berriak: Berria egunkariak, hain zuzen ere. Neurri handi batean, herrietan egiten diharduten lanari esker irtengo da. Izan ere, herrietan hamaika batzorde osatu da egunkari berriaren aldeko dirua lortzeko. 5.000.000 euro lortu behar dira egunkari berrirako.	30.000
Elgoibarko Egunkariaren Aldeko Batzordeak falta den dirua lortzeko, 2 eurotan salduko diren 3000 rifa ateratu ditu. Sariak Elgoibarko jende ezagunak emango ditu. Besteak beste, Zuhaitz Gurrutxagak, Joseba Etxeberriak, Jasone Osorok, Edu Arrillagak, Jon Gurrutxagak eta Lorea Perez de Albenizek emandako erregaluak zozketatuko dira.	25.000
Zozketa ekainaren 23an egingo da, eta 27an BARRENen eta Eguneron irtengo dira zenbaki sarituak. Rifak erosi nahi duzuenok pasa Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen lokaletik.	20.000
	15.000
	10.000
	5.000

15.000 euro lortu ditugu dagoeneko!

Elgoibarren 30.000 euro (5.000.000 pezeta pasa) lortu behar ditugu Berria egunkari berrirako. Zuei eskerrak, dagoeneko erdia lortu dugu. Baina, akaso, zailena geratzen zaigu. Beraz, laguntzeko prest zaudetenok pasa Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen lokaletik edo deitu 943-74 16 26 telefonora. Mila esker, benetan!

"16: / 30.000 tow.to4,
ets.c4,~4-1

Historian estreinakoz, emakumezko bat izango da alkate gure herrian

IGARRIKO AL DUGU EMAKUME BATEN ESKUA DATOZEN LAU URTEETAN?



MARIAN MARTIN
36 urte, abokatua

Nik uste dut igarriko dela. Gauza askotan emakumearen eta gizonaikaren ikuspuntua desberdina da. Estetikoki, zenbait arazoren aurrean desberdina izango da. Hobeia edo txarragoa ez dakit, baina desberdina seguru.

WpcUT: „T ,
39 urte, irakaslea

Ez litzateke igarri beharko, baina desberdinak gara gizonak eta emakumeak. Gauza batzuetarako beste sentsibilitate bat daukagu. Hala ere, ezin da orokortu. Hobeia edo txarragoa izango den ezin da esan.



JOSE MARI ARREATEM
53 urte, fundizioko langilea

Zerbait igarri biharko litzake. Ez dakit diferentia izango dan, baina aurrekoa meioratzia ez da zaila izango. Kanbixua onerako izatia espero dot.

WS.C1r.
65 urte, jubilatua

Alkate berriarekin herria berdina edo hobeto joan daiteke. Bere esku dago desberdintasuna igartzia edo ez. Ezin daiteke esan hobeia edo okerragoa izango denik, baina herria zuzentzeko emakume aproposa dirudi.



JERONIMA TERCERO
58 urte, etxeandrea

Ez dut uste. Garrantzitsuena herriarentzat gauzak ondo egitea da. Lana egin behar den moduan egin ezkeru, ez litzateke diferentziarik igarri behar.

TOMAS EGAÑA
72 urte, jubilatua

Aurrerantzian ikusi biharko da boberako edo txarrerako izango dan; baina emakumea izanda ere, herria maneitzeko kapaz baldin bada, nahikua da. Bestiak entzun, eta zuzendu ein biharko ditxu.




IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN 70i OEKO BEHERAPENA

*epvia oo — tetvtdo4 16 unte dete aaineul et4
Lladi fiteleta ffitilma 1ff totte dete amedi*

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A
Tel: 943 74 10 11

U A Z I E V A K K I A · ZUZKO EKAINAREN ZUA. AI URTEA/430. ZKIA

Gaztia BARREN



Ekiñe Alkorta, Hezkuntza Bereziko ikaslea

Praktiketan Nikaraguan

(HITTIN" THE NOTE

Hegoaldeko blues rockaren aintzindarietako bat dugu The Allman Brothers Band. Ez da, ordea, zorte handiko taldea izan. Lehengo Duane Allman hil zen moto istripuz 1971ko urrian, At Fillmore East zuzeneko grabatu eta gutxira. Urte bete geroago errepide berean Berry Oakley baxujolea hil zen autobus batek bere motoaren kontra jo zuenean. Taldea 1981etik 1989ra desegin egin zen. "Seven tums" izan zen banda mitikoaren itzulera. Warren Haynes gitarrajolea, Allen Woody baxujolea (94an Gov't Mule sotuko zuten) eta Johnny Neal teklista ziren partaide berriak. Baina zoritxarrez Woody 2000ko abuztuan hil egin zen. "Hittin' the note" (2003) da beraien diskorik berriena, Dickey Betts gitarrajole orijinalak grabatu ez duen lan bakarra. Izan ere, azkenengo zuzeneko grabatu aurretik taldea Betts-ekin haserretu eta kaleratu egin baitzuen. Bere ordeez Butch Trucks bateriaren semea Derek dago gitarran.

"Hittin' the note"-ek Allman Brothers-en ohiko ildo jarraitzen du: hegoaldeko kutsua duten blues&rockak, garapen luzeko kantak, feeling-a eta Gregg Allman-en ahots gartsua. Warren Haynes-ek hiru kantatan abesten du: "Woman across the river", "Rockin' horse" (Gov't Mule-en bertsioa) eta "Old friend", diskoari amaiera ematen dion blues akustiko bikaina. Produksioa ere oso ongi zaindua dago. Dударik gabe, goi mailan jarraitzen du The Allman Brothers Band-ek.

Jon Gurrutxaga



JON GARATE

"TEXA SEKO Erlazivak hEmEnguak baino"

JON GARATE EIGOIBARTARRA FISIKA IKASIEA DA. JOAN ZEN UZTAIETIK AURTENGO MAIATZA ARTE TEXASEKO UNIBERTSITATEAN, AEBTAN, BURUTU DU KARRERAKO AZKENEKO URTEA ETA IASTER, BERRIRO ERE HARA ITZUITZEKO ASMOA DU DOKTOREGOA EGITEKO. DENA ONGI JOANEZ GERO, BESTE IAUZPABOST URTE PASAKO DITU JONEK PUTZUAREN BESTE AIDEAN.

Nolatan erabaki zenuen ikasketak Texasen amaitzea?

Garbi neukan karrerako azkeneko urtia kanpuan in nahi nabala. "Erasmus"eko aukeriakin pentsatzen egon nintzan eta azkenian irakasle batek **KO**-mentatu zian aukera interesgarria izan zitekeela AEBtara juatia.

Zein esango zenuke dela han edo hemen ikastearen aldea?

Ikasteko eta irakasteko sistema oso desberdina da. Gainera, hango unibertsitatiak askoz diru gehixao dauka hemenguak baino eta ikerkuntzan askoz gehixao inbertitzen da. Horregatik askoz gehixao dira laborategiak, ikerkuntza taldiak... Dana da hemen baino askoz haundixaua. Bestetik, irakaslien maila ere altuaua da eta hortaz aparte mundu osoko ikasliak egoten gera. Kanpotar asko dau eta gehixenak maila onetuak. Jende ona dao.

Orain arte oso nota onak atera izan dituzu. Texasen zer moduz moldatu zara?

Momentuz ondo jun zait. Ne-

re ustez han nota onak ateratzia ez da hemen bezain zaila. Han irakasliek beti suposatzen dute ikasliak gustora eta ikasteko gogarekin daudela eta ez dira izorratzera juten. Hemengo irakas-

liak **ZORRO**-tzauak izaten dira nota ematerako orduan. Gainera, hango ikasliak normalian motibatuau egoten dira ikasteko eta lana eitzekeo.

"Han unibertsitatiak askoz diru gehixao dauka hemenguak baino eta ikerkuntzan askoz gehixao inbertitzen da"

Etorkizunean geldituko al zinateke AEBtan lanean?

Ez dot planteatzen, nik ez dakitx nun bukatuko doten nere bizi baina, egixa esan, ez dot nere burua ikusten han lanian eta han bizitzen; denbora luze-rako ez, behintzat.

Zer da atzerrian zaudenean faltan gehien sumatzen duzuna?

Faltan botatzen dot familia, lagunak, janarixa, mendixak... gainera, hango erlazivak azalekoauak dira hemenguak baino. Jende gehixena kanpotarra danez danek dakate hitz eitzekeo eta jende berrixa ezagu-

azalEkoauak dira

tzeko gogua, hasieran danok sentitzen gera pixkat baka- rrik. Horregai- txik, esan de- zaket erlazio lagunkoi asko eduki ditzute- la, baina ez dakitx esaten han lagun-lagunik eduki doten ala ez.

Eta zer dago han hemen ez dagoenik?

Ikasteko erreztasunak, ikasteko giro oso ona, hemen ez dauan giro internazional oso politxa eta klitxe- rik eza. Hemen segitxuan jartzen dia etiketak, han jendiak askoz ere mentalida- de irekixaua daka gauzak barneratzeko eta onartzeko.

"Hemen segitxuan jartzen dia etiketak, han jendiak askoz ere mentalidade irekixaua daka "

Zertan aldatu da zure bizitza atze- rrian ikasten du- zunetik?

Ba, konturau naiz mundua oso zabala dala eta he- mendik kanpo gauza askoz gehi- xo daudela. Ni ere lehen baino irikixaua naizela us- te dot eta lotsa gutxio da- katela, oindik lotsatixa naizen arren. Hemengo mundua ere beste begi batzukin ikusten dot.

Gustura zaude, be- raz.

B a i , oso. Daneri gomendau- ko nieke denboral- di batera- ko kanpora bizitzera jutia.



r5ANTUTEGIA

FAULKNER

L

iteraturaren historian beren kontakizunak lekutzeko lurraldeak

asmatu dituzten idazleak izan dira. Urrutira joan gabe, hor daukagu Ber- nardo Atxagaren kasua, Obaba izene- ko lekua sortu zuena. Baina badira adibide gehiago ere, Juan Rulfo me- xikarraren Comala, esate baterako, edo Gabriel Garcia Marquez-ek bere "Cien años de soledad" eleberri miti- koa kokatzeko aukeratu zuen Macon- do. Bada, William Faulkner estatuba- tuarra "Yoknapatawpha County" ize- neko lurralde literarioaren asmatzai- lea da. Hain zuzen, kondeni horretan dagoen Jefferson hiria da bere "San- tutegia" nobelaren kokalekua. Libu honen lehenengo zatian hilketa laz- garrri bat gertatzen da. Baina ez da hori nobelan aurkituko dugun bortiz keriazko ekintza bakarra izango. Es- treineko orrialdeetatik eleberriaren bukaerara arte, irakurlea harrituko duten indarkeriazko gertaera gehiago izango dira. Horiekin, idazle ameri- karrak injustizia salatzeo asmoa era- kusten du.

William Faulkner-ek idazle bezal- i agertzea gustoko ez bazuen ere, Li- teraturaren Nobel saria jaso zuen 1950ean "Santutegia" edo "Hotsa eta ardaila" (Ibaizabal argitaletxea) be- zalako liburuei esker.

r
d
k
u
r
r
i

Jon Eugi

SANTUTEGIA

Faulkner



40

11

EkiñE Alkorta



"Hau paradisua dE

Nolatan erabaki zenuen praktikak atzerrian egitea?

Hortarako aukeria zuala jakin nabanean ez naban bi aldiz pentsatu, kultura eta bizimodu desberdinak ezagutzeko gogua nakan.

Zer lan egin duzu bertan?

Klasiak ematen ibili naiz kaletik jasotako gaztiak eta hezkuntza bihar berezixak zitxuzten gaztien zentro batian. Karrera bukaerako proiekturako gai bat aukeratu bihar naban eta horri buruz klasiak eman. Hasieran galduta aurkitxu nintzan, ez naki -

xan ze gai aukeratu, oso baliabide gutxi zeuden... Azkenian, gaitzat "sexualitatea, planifikazio familiarra eta tratu txarrak" hartzia erabaki naban, informazio falta haundixa zualako gai hauen inguruan. Gainera, zentroko ume batzuk familixakuen aldetik tratu txarrak eta abusu sexualak jasandakuak zian.

"Gabzat 'sexualitatea, planifikazio tambiarra eta tratu txarrak' hartzia erabald nahan, intormazio talta haundbla zawdeko gal hauen Inguruanli

Nola moldatu zinen klaseak emateko?

Behin gaixa finkauta, oso atsegina in zitzaidan beraiekin lan itxia. Euren parte hartzia ta talde dinamika bultzatzen nitxuan, asko jokuen bitartez; baina ez zan erreza, ze danek arazo ezberdinak zazkaten eta erritmo desberdineraz zijuazen. Garun paralisidun haurrak, down sindromedun eta adimen urritasuna zuten hurrekin batera zeuden, adibidez. Baina euren erantzuna kristona izan da.

Zein da eskolan topatu duzun beharrik handiena?

Hezkuntza bereziko irakaslerik ez zauan eta fisioterapeutarik ere ez. Ez



A
I
A
G

PRAKTIKETAN NIKARAGUAN

EKIÑE ALKORTAK HEZKUNTZA BEREZIA IKASI ZUEN ESKORIATZAN ETA BI HILABETEZ NIKARAGUAKO DIRIAMBIA HERRIAN IZAN DA PRAKTIKETAN. HAUR ETA GAZTE EZINDU ETA ATZERATUEKIN ARITU DA LANEAN POBREZIA GORRIAN BAINA IRRIBARREZ BIZI DEN HERRIALDE BATEAN. AHAL IZAN DUENA EMAN ETA ESPERO BAINO GEHIAGO HARTU DUELA ONARTU DIGU. HIZKETALDI GOXOA IZAN DA EKIÑEREKIN EDUKI DUGUNA ETA POZEZ, ILUSIOZ ETA NOSTALGIAZ MINTZATU ZAIGU HAUR NIKARAGUARREN BEGIRADA XALOAZ.

Nikaraguakin konparauta"

dao bihar berezixak dazkaten umieri erantzuna emateko bitartekorik.

Beste zentro batzuk ere bisitatu

Bai, prostituta izandako emakumeen zentro batian egon ginan ta drogo-menpeotasun arazuk zitxuzten gurasuen seme-alaben zentro batian ere bai.

Non bizi izan zara?

Familixa baten etxian egon naiz, 25 urteko emakume batekin ta lau urteko semetxuakin. Gure etxia nahiko ondo zauan baina, hala ere, ura egunian 3 edo 4 ordutan bakarrik geneukan. Gainera, hasieran oso gaizki pasau naban bitxuekin: armiarmak, la-bezomorruak...

Zer izan da gehien harritu zaituena?

Kaleko umien egoera. Ume asko ez dia eskolarara juten, etxian ekonomikoki lagundu bihar dabelako ta txiki-txikitatik lana itxen dabe kalia txupatusak eta gailetak saltzen. Familixa gehixenek 12 kordobakin (1_inguru) pasatzen dute eguna eta otordu baka-

rra itxen dabe; bazkaldu edo afaltzia aukeratu bihar dabe. Txaboletan bizi dia, askotan kumunik eta urik gabeko txaboletan.

Gizarte oso ezberdina da, ezta?

Bai oso. Gizonen emakumienganako dakaben obsesiva adibidez ikaragarria da. Oso gizarte matxistia da. Emakumiak oso baztertuta bizi dia eta tratu txarrak ere asko ematen dia. Oso gazterik ezkontzen dia eta ezkontzak, gainera, familixen artian adostutakuak izaten dia. Alko-

holismuakin eta "huelepega" edo kola esnifatzailiekin ere arazo haundixa dau. Kriston pobrezia eta informazio falta dau eta hori danian igartzen da. Gainera, oso-oso gizarte erlijiosua da. Baina pasada bat da, ez dakabe ezer, ta hala ere, dakaben guztixa ematen dizute.

"Familixa gehixenek 12 kordobakin (1 euro inguru) pasatzen dute eguna eta otordu bakarra itxen dabe, bazkaldu edo afaltzia aukeratu bihar dabe."

Bertako jaiak ere gozatu ahal izan zenituen.

Bai, urtarrilan 19xan han ere San Sebastianak ospatzen dia ta bertako folkloria ezagutu ahal izan gendun. Koreografixa batzuk eta "Gueguense" dantza ere ezagutu genitxun, hau arraza txurixari burla moduan dantzatzen dabe. Juerga batzuk in ditxugu bertako ronakin.

Esperientzia ona, beraz.

Pasada bat. Profesionalki ez dakitx, baina pertsona bezela pila bat ikasi dot. Konturau naiz hamen paradisu bizi gerla ta gainera ez gerla hortaz konturatzen. Kriston penia eman zian hango jendia despeditziak, pasada bat dia.



lots@gabE

Parte hartu nahi baduzue deitu edo etorri **BARREnera. Animatu!**

@ Nola imajinatzen duzu zure burua
10 urte barru?
Afrikan

@ Inoiz egin duzun hankasartzerik
handiena?
Aceite "h"kin idaztia

@ Non jarriko zenuke zure
argazkia?
DNIXan

@ Bizio bat.
Interneten ibiltzia

@ Zer egingo zenuke munduan
bakarrik geratuko bazina?
"Resen eman

@ Utopia bat.
Karibeko hondartza baten, neska bate-
kin eta txosna baten albu...n

@ Zer egingo zenuke loteria tokatuz
gero?
Apurau

@ Barrez lehertu zaren momentu
bat.
Gaur euskerako esamina itxen

@ Zer ikusten duzu ispiluaren
aurrian?
Granuak

@ Zerk ematen dizu totsa?
Bustamante imitatziak

@ Inoiz esan dizuten gauzarik
nolitena?
Berezi sentiarazten nauzu

@ Zertan
aten dizu lotsa?

Aznarrek

@ Nora joango zinateke zita
erromantiko hatean?
Zumaiako hondartzako akantilaue-tara

@ Lehenengo muxua
noiz eta nori?
Amari, txikitan

@ Inoiz egin duzun lotsagabekeria
handiena?
Jaixetan buruhandi izanda urnien amak
jotzia

@ Idolo bat.
Georgio Dann

@ Zer esango zenioke
neska/mutil bati berarekin
atzeko?
Karteria jausi zaizu

@ Zertan
tunduan gauza bat aldatzekotan?
Itsasuan koloria



titOtild'

TXARTELA



gazte
informazioa

TXARTELA

4111 TXARTELA

Argazkia
NAN.
Matrikula
6 euro

Argazkia
NAN.
Lon kontrotuoren
frogagiria
8 euro

GAZTEA (14<25 urte)
NAN.
5 euro
Gozte Txortelarekin 2,5 euro

HELDUA (25<)
NAN.
11 euro

FAMILIAKOR
NAN.
22 euro

TALDEKOA
Partaideen zerrendo
Estotutuen kopio
15 euro
Dohainik elko elkorteen partaideok

ga'ne- TXARTELA
Argazkia
NIIN
6 euro

fiterpetheen liburu gida
salgai 7,80 eurotan
(Europa, AFrika, Amerika, Asia)

kultur etxeko 2.solairua Nafarroa plaza,3 • Tel. 943 741 461 • E-maila:elg.gzerbitzua@terra.es

Handia naiz En Ean... Erizaina



JOANA RUIZ

Jendea laguntzea gustuko du Joana Ruiz 19 urteko J.et-hoberik beraz erizaintza baino bere bokazioa asetzeko. Izan ere, bokaziorik eta ausardiarik ez duenak jai duela erizaintzan aitortu digu. Elgoibar Institutuan ikasten du erizaintza zikloa, nahiz eta ikasgaiak baino gehiago erakartzen duten klasean bertan egoera errealak irudikatuz egiten dituzten praktikek.

Zergatik aukeratu zenuen Erizaintza ikastea?

Betidanik gustatu izan zaidalako medikuen eta erizainen mundua. Beti nahi izan dut jendeari laguntzea.

Noiz eta nola konturatu zinen horretaz?

Batxilergoko lehenengo mailan hartu nuen erizaintza ikasteko erabakia. Batxilergoa laga eta erizaintzan apuntatu nintzen. Erizaintza ikasten ari den lagun bat neukan eta berak kontatu zidanak animatu ninduen azken pausua ematera.

Zenbat denborarako ikasketak dira?

Urtebete eta erdi ikasten eta beste urte erdi praktikak egiten.

I,anbide honetarako bokazioa beharrezkoa al dtt?

Bai, piska bat bai, bestela jai dago. Egoera gogorak ikusten dira eta ausardia beharrezkoa da.

Ez al zenuen inoiz mediku ikasketak

Ez. Oso zaila da. Gustatu, gustatzen zait, baina ikasketak luzeak eta gogorak dira.

Zein da zuretzat irakasgai zailena?
Oinarrizko Erizaintza Teknikak eta Higiene ikasgaiak dira zailenak niretzat.

Eta zer da gehien gustatzen zaizun?

Klasean egiten ditugun praktikak, dudarik gabe. Egoera errealak sortu eta irudikatzen ditugu. Institutuan dagoen gela batean ditugu oheak, garabia, panpinak, sendagaiak... eta beharrezko guztia.

Non egin ditzakezue praktikak?

Ospitale batean, geriatrikoan, psikiatrikoan, dentista baten kontsultan, etab. Hilabete eta erdi leku batean eta beste horrenbeste beste leku batean egin behar ditugu teoria ikasi ostean.

Zenbat mutil eta zenbat neska zaudete?

Guztira 20 ikasle gara eta mutil bakarra dago.

Zer lan irteera ditu?

Dentista baten kontsultan, zaharren egoitzetan, psikiatrikotan, ospitale batean... aukera asko daude. Niri geriatriko edo psikiatriko batean lan egitea gustatuko litzaidake.

Gomendatuko al zenioke beste norbaiti ikasketak hauek egitea?

Jende nagusiarekin egon eta gaixoak zaintzea gustatzen bazaio bai. Besteiei on egitea gustatzen bazaizu, alegia.

MAITATZEKO BERDINAK ERAKUSKETA

Ekainaren 28an, Gay eta Lesbianen Nazioarteko eguna dela eta, Elgoibarko Biluzik Sexologia Zerbitzuak gai honen inguruko erakusketa antolatu du "Maitatzeko Berdinak". Gaur, hilak 20, inauguratuko da eta ekainaren 29ra arte izango da ikusgai Kultur Etxeko sotoan. Inaugurazio egunean **11** **koak gurekm** izango ditugu, beraien eskutik antolatu baitugu erakusketa hau.

Bestalde, hainbat ekitaldi egingo dira Euskal Herrian Gay eta Lesbianen Nazioarteko Eguna ospatzeko.

HEGOAK- ek antolatuta:

- Ekainaren 2lean: Bilboko udaletxe parean txalupa hartu, Abandoibarra pasealekuan. Gaueko 00:00etan aterako da eta E1 Abra-raino joango da. Ongietorria emateko koktail bat

egongo da, ondoren, musika, kopak... Prezioa 10 euro. Izena emateko honako telefonora deitu: 944701012

GEHITU-k antolatuta:

- Ekainaren 21ean: Santa Klara irlan pic-nic ludiko gay-lesbikoa. Eguerdiko 12etan txalupetan irlara. Bertan, pic-nic-a eta hainbat ekintza egingo lehiaketak, txalaparta tailerra, buzero saioak, ...eta 18,00etan buelta.

- Afaria: LARRE tabernan (Lasarte-Oria), gaueko 21,30etan. 20 euro (bazkideak 15 euro).

- Ekainak 26: Ricard de la Rosa-ren hitzaldia Donostiako Goi-koa jauregian.

- Ekainaren 27an: Pedro Usabiagaren "Diario intimo" dokumentala. 20,00etan Kutxaren Arrasate lokalean (Arrasate kalea, 2 Donostia). Sarrera dohainik izango da.

- Ekainaren 28an: Manifa Bilbon. Ondoren, Festa handia EGIA Zentro Kulturean, 23,00etan. Sarrera dohainik izango da.

Biluzik .Sexolofija "terbir:oa
Gr'tr 1n formaz7o (dined. 1,uttur Etxra.
BigalTen solairuad. 4c1. 943 74 1 4 61.
hiluz.i4rcrolizaaur valow.e#
.1slelehena 17:00-20:00

sexualitatea
konplejurik gabe

ERIZAINA

7EN IRAUPENA?

Bi urte.

- Urte eta erdi ikasten.
- Urte erdia praktiketan

- Higiene
- Laguntza psikologikoa
- Odontologia
- Oinarrizko Erizaintza Teknikak
- Lan Inguruko Harremanak
- Lan mundurako formazioa eta orientazioa

kontzertuak

Ogazte
informazioa

Elgoibarko Gazte Infortnazio Gunea Kultur Etxearz.

Bigarren solairuan. Tel. 943 741 461

0 rdutegi berria

Astelehena: 17:00-20:00

Asteartea-ostirala: 16:00-20:00

Truke-programa

Castrumek gazte espainiarrentzako truke programa antolatu atzerrirako, 18tik 31 urtera bitarteko adina duten gazteentzat. Hizkuntza maila ertaina eskatzen dute. Programa urte osoan zehar egiten da.

Auzolandegiak

Gaztekutxaren auzolandegiak 15etik 29 urtera bitarteko adina duten gazteentzat. Gaztekutxa txartela izatea eskatzen da. Pasaian, Hernanin, Getarian eta beste hainbat tokitan burutuko dira. Epea: ekainak 27.

wlsTAmAl,

Hirigintza kudeaketa

Lurralde eta Hirigintzako Azterketen Euskal Eskolareak-ek (EVE TU) hirigintza-kudeaketako oinarritzko ikastaroa antolatu du. Ikastaroak 27 orduko iraupena izango du. Epea: ekainak 23.

LEHIAKETAK

Poesia

Loewe Fundazioak Nazioarteko XVI. Poesia Saria antolatu du. Lanek gutxienez 300 lerro izango dituzte eta argitaratu gabeal izan behar dira: Epea: ekainak 24.

Labumetraia

Localia Televisionek labumetraien lehiaketa antolatu du gazteentzat. Zinemagintzako edozein eskola ofizialetan edo homolo gaturiko ikus entzunezkoen ikastegiren batean matrikulatuta dauden ikasleek har dezakete parte. 35m-ko, 16mm-ko edo bi deo profesionalaren edo semiprofesionalaren edozein formatutan eginda egon beharko dute. Gaia askea da. Lanak gehienez: 12 minutuko iraupena izango du. Epea: abenduak 31.

Ipuinak eta antzerkia

Kutxa Fundazioak ipuingintza eta antzerkiko 2003ko "Kutxa-Donostia hiria" literatura sariak antolatu ditu. Euskarazko edo gaztelaniako espezialitateak daude. Ipuina: gaia libre, 6tik 25 orrirako luzera. Antzerkia: gaia libre, 75etik 100 minutuk luzerarekin. Epea: urriak 15.

LANA

Irakaslea

Arrasateko Udalak Ingurumen-eskolako irakasle bat aldi baterako kontratatzeko oposizio lehiaketa antolatu du. Diplomaturc edo lizentziatura eta euskarazko 3. hizkuntza eskakizuna izatea beharrezkoa da. Epea: uztaillak 4.

EKAINA

20 barixakua

ATARRABIA

Bide ertzean

Plazan

ONDARROA

AC/DC gaua: The Bon Scott

Band

Kafe Antzokia

GASTEIZ

Su ta Gar

Azkena Antzokia

BILBO

E-Bow

Azkena Antzokia

21 zapatua

BILBO

Los del tonos

Azkena Antzokia

ONDARROA

Seydu

Kafe Antzokia

26 EguEna

BILBO

The tyde

Azkena Antzokia

BILBO

Vocal Sampling

Kafe Antzokia

GASTEIZ

27 Goldfrapp

Azkena Antzokia

27 barixakua

BILBO

Arde Asia

Azkena Antzokia

29 domEkia

BILBO

Mr. Jam 10. urteurrena

Azkena Antzokia

31 zapatua

ONDARROA

Ken 7

Kafe Antzokian.

ci t
(... 1

atoxutixlarpaikKa
AISIALDI TALDEA

1PUIN
KO NTALARIA



Kultur Etxean
Ekainak 21, zapatua
Goizeko 11etan
4-5 urteko haurrentzat

A_I-BERIDI

ERREKADISTA

ir 609 264 705

ELGOIBAR - DONOSTIA (enpresa eta partikularrentzako)

BILKETAK

- Paketeak
- Sobreak
- Gestoria
- Komertzioa

GESTIOAK

- Ogasuna
- Trafikoa
- Merkataritzako erregistroa
- Diputazioa
- Merkataritzako - ganbera

IriondoTABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Trinitate jaiak argazkitan



II. Trinitate Feria Berezia





I. Bereziartua Musika Eskolako ikasleen jaialdia

Artisau azoka



Umeen danborrada



Jose Luis Insausti izango da C.D. Elgoibar Klubeko presidente berria

Bestalde, 6.500 euroko aurrekontuko superabita izan du C.D. Elgoibarrek



Jose Luis Insausti presidente berria.

CD. Elgoibar Kluba kinka larrian egon da azkenaldian. Igor Palomino buru zuen C.D. Elgoibar Elkar-tearen zuzendaritzak kargua lagako zuela iragarri zuenetik, ez zen kluba zuzentzeko prest zegoen inor agertzen. Udalaren arduraren geratzeko arrisku bizian egon da kluba, baina azken orduan miraria gertatu da. Zuzendaritza berria bilatzeko hirugarren batzarrera arte itxaron behar izan zen, Jose Luis Insaustik bazkideen aurrean Klubeko presidente izateko prest dagoela iragarri zuen arte, hain zuzen ere. Pasa den ekainaren 18an, eguaztenean, gertatu zen hau. Insaustiren atzean 9 edo 10 jokalariren gurasoak daude. Egoera larria zela ikusirik elkartu eta aurkeztea erabaki zuten. Hain zen egoera larria, non aurreko zuzendaritzak he-

rriko kaleak paperez josi zituzten larrialdizko deialdia eginez, bazkideak animatuko ziren esperantzarekin. Klubarentzat eta batez ere Haundirentzat ezinbestekoa zen lehenbailehen zuzendaritza izatea taldeak hurrengo denboraldia prestatzen ari baitira eta Haundirako jokalaririk aproposak izan daitezkeenekin hitz egiten hasiak dira,


6.500 euroko superabita

Bestalde dirukontuei dagokionez, fin egin dute lana Igor Palominoren taldeko gestoreek, 6.487,04 euroko superabita izan baitu taldeak aurten. 131.077,77 euroko gastuak izan ditu eta sarrerak 137.564,10 eurokoak izan dira. Gaur egun 215.893,51 euroko patrimonioa du C.D. Elgoibar Klubak.

Ibai Lopez bergararra nagusi Bigarren Dirtsurf Txapelketan

Tbai Lopez bergararrak irabazi zuen 1 "Devilsurf.com"ek antolatutako Elgoibarko 2. Dirtsurf Bilketa. 34 partehartzaile izan ziren guztira, denak ere snowboard eta surfaren mundutik datozenak. Jatorriari dagokionez, kanariarrak, madrildarrak, katalanak, kantabriarrak, portugaldarrak eta euskaldunak hurbildu ziren Elgoibarrera. Banan banako erlojuaren kontrako modalitatean jokatu zen txapelketa eta Ibai Lopezek egin zuen denborarik onena bi jeitsieretako denborak batuz (10'16").

Bigarren jaitsieran 5'02 denbora harrigarria egin zuen, lehen jeitsialdian baino 12 segundu gutxiago, alegia. Javier Roldan kantabriarra sailkatu zen bigarren postuan (10'22") eta Erik Gauna bergararra izan zen hirugarren (10'41"). 50 eta 55 kilometro orduko bitarteko batezbesteko abiadura hartzera iritsi ziren sailkapeneko lehendabizikoak. Txomin Kastrillejo izan zen parte hartu zuen elgoibartar bakarra. Tamalez, jauzi egin zen eta helmugara iristea lortu bazuen ere azken postuan sailkatu zen.



Unai Loiola sanmigeldarrak irabazi du Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketa



Sanmigeldarrak izan dira jaun eta jabe Gipuzkoako 34. Hiru-Txirlo Bolo Txapelketan. Sailkapen nagusiko lehen hiru postuak auzo honetako bolarientzat izan dira. Unai Loiola izan da txapeldun 31 txirlorekin, Xabier Loiola bigarren 29 txirlorekin eta Jabier Osoro hirugarren 28 txirlorekin. Lehendakari saria ere Unai Loiolak irabazi du. Bikoteka ere Jabier Osoro eta Imanol Osoro sanmigeldarrek osatutako bikoteka izan da irabazlea.

Emakumezkoetan Aitziber Olaizolak bigarren postua eskuratu du eta alebinetan Julen Ibarluzeak jantzi du txapela. Benjaminetan, berriz, Jon Ibarluzea bigarren postuan sailkatu da. Azkenik, taldekako sailkapenean bigarren postuan geratu dira sanmigeldarrak Eibarko Asola-Berri taldearen atzetik. Txapelketak 8 jardunaldi izan ditu eta Elgeta, Elgoibar, Eibar, Azkoiti eta Plaentxiko bolo tokietan jokatu da, besteak beste.

Portu/Txurruka eta Ulazia/Iriondo bikoteek Debarroko Pilota Txapelketa irabazi dute

Lagunak Pilota Eskolako kadete eta jubenil mailako pilotariek bailarako onenak direla erakutsi dute, Debarroko Pilota Txapelketa irabaziz. Pasa den zapatuan, ekainaren 14an, jokatu zituzten finalak Ikastolako frontoian. Markel Portuk eta Iker Txurrukak 22 eta 16 irabazi zieten Azkarate eta Azkaratek osatutako Aloria Mendi (Oñati) taldeko pilotariei. Partidu parekatua izan zen eta tanto gutxiko aldea atera zioten elkarri 14. kartoirira iritsi arte. Hemendik aurrera segurantza gehiago erakutsi zuten elgoibartarrek eta txapela etxean geratu zen. Iker Txurruka atzelaria aukeratu zuten finaleko pilotaririk nabarmenena. Jubenil mailako finalean Eskoriatzako Abasolo eta Aspe bikotea izan zuten aurrez aurre Eneko Ulaziak eta Haritz Iriondok. Eskoriatzarrak partidurik galdu gabe iritsi ziren Elgoibarrera, baina Ulazia mendaro arrelariak partidu biribila jokatu zuen eta 22 eta 17 izan zen azken emaitza Lagunak-



Iker Txurruka (ezkerrean) eta Markel Portu, kadete mailako Debarroko pilota txapeldunak.

eko pilotarien alde. Ulazia aukeratu zuten finaleko pilotaririk nabarmenena. Haritz Iriondorentzat, berriz, jarraian irabazi duen bigarren Debarroko Txapelketa izan da. Iaz kadete. mailan jantzi zuen txapela Goenaga pilotari azkoitiarra lagun zuela.

EMAITZAK

Esku pilota

Lagunak Txapelketa

Finalerdiak

A.Gabilondo **18** - R. Ortuoste **2** (Benj.)

H.Arribillaga **18**- A. Lizarralde **10** (Inf.)

I.Arrieta **18** - J. Agirrebeña **16** (Int.)

I.Txurruka **22** - J. Mugerza **3** (Kad.)

M. Portu **22** - A. Guemez **8** (Kad.)

AGENDA

Esku Pilota, Plaza Handian

(Euria egingo balu Ikastolan 21:00etan)

Barixakua, 20

Lagunak Txapelketako finalak

18:00 F. Conde - I. Amezi (Benj. Aurre.)

18:30 A. Gabilondo - I. Txurruka (Benj.)

19:00 H. Arribillaga- I. Arrieta (Inf.)

19:30 I. Txurruka - M. Portu (Kad.)

Futbola 7, Mintxetan

Zapatua, 21

10:00 Gure Txoko - Txanpions txein

10:00 Brujeria - Peña los petas

11:00 La Naranja Mecanica - Brothers team

11:00 Grasshoppers - Los Canteranos

12:00 Fontaneria Astigarraga - Peña Local

12:00 Celta de Viño - Pizu y su tropa

13:00 Bar Tupi Azpi - Kili Kili

13:00 Inkision -Kashims Brewers

Ekainaren 27an, barixakuan, jokatu da Nahaste Borraste

Kimetz Elkarteak antolatuta, ekainaren 27an, barixakuan, jokatu da Nahaste Borraste kirol proba herrikiariaren 19. edizioa, arratsaldeko 19:00etan. Ohi bezala 3 kirol ezberdin egin beharko dituzte parte hartzaileek. Txirrindularitzarekin hasiko dira: Plaza Handitik irten, Txankakua zubia, N-634, San Antolineko bidegurutzera, Karkizano, Urruzuno, Albitxuri, Ibarrenea, IMH, Ermuaranbide, Madala, San Frantzisko, Errosario eta Plaza Handia. Ondoren, 25 kiloko zakua bizkar gainean aintxintxika egin beharreko ibilbidea, berriz, honakoa izango da: Plaza Handia, San Bartolome, Errosario eta Plaza Handia. Saltaka egin beharreko proba izango da azkena: Plaza Handian hasi, Santa Ana, Trenbide kalea, Bernardo Ezenarro, Ermuaranbide, San Frantsisko, Errosario eta Plaza Handian



Argazkian iazko partehartzaileak. David Conde izan zen irabazlea.

amaituz. Iaz moduan 16 urtetik gorakoek lasterketa bakarrik jokatu da aurten ere. Irabazleek garaikurrak jasoko dituzte ahaleginaren ordainetan, baina lehiakide

guztien artean zozketatuko diren 3 afari ere izango dira. Amaieran Kimetz Elkartearen egingo den afarian parte hartzeko aukera izango dute parte hartzaile guztiek.

Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Eibarko enpresak **promotorea** behar du. **Erref. 104201/3**

Donostialdeko enpresak **erizaina** behar du. **Erref. 104614/1**

Debabarreneko aldi baterako enpresak **garbiketarako langilea** behar du. **Erref. 103920/2**

Eibarko enpresak **bidai agentea** behar du. **Erref. 103816/3**

Donostialdeko enpresak **kontu gestorea** behar du. **Erref. 103752/4**

Debabarreneko enpresak **late-txerako kamareroa** behar du. **Erref. 100917/9**

Hautagai moduan sartzera eskatu nahil baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristil **943 74 80 19** edo IMH (Nora RamOnl **943 74 41 32** telefonora.

Lana

ESKAERA

Neska euskalduna pertsona nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. ETxean edo ospitalean, egunez edo gauez. **v 616533706**

Mutila garbiketa lanak, buzoneo edo kartelak pegatzeko prest. tr **943 74 44 63 (Andres)**

Fabrika sektorean esperientzia handiko neska eskaintzen da, piezak montatzen, edo fabrikari lan egiteko. Baita garbiketan aritzeko ere.

620 02 92 71 (Carmen)

* Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Egunean 2 ordu. **1T 686 60 02 39**

42 urteko emakumea adinekotak zaintzeko prest. Esperientzia daukat. a **677 09 70 15 (Carmen)**

Bi erizain laguntzaile gaixoak edo nagusiak zaintzeko prest. Etxean edo ospitalean. Esperientziadunak. **1T 636 05 34 61/686 22 62 74**

Erreforma elektrikoak egiten ditut. Merke. ze **649 92 55 90/943 28 00 22 (Vitorio)**

Emakumea nagusiak, edo 10 urtera arteko haurrak zaintzeko prest. tr **943 74 30 04 (Elena Garcia)**

ESKAITZA

Neska edo mutila behar da, as-teburuetan txandaka tabernari lan egiteko.. Tr **943 74 28 97**

* Emakume gaztea edo adin er-tainekoa behar da, Mendaron 8:00etatik 14:00etara umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. tr **943 75 52 06 (goizez)**

Kamareroa behar da. 40 orduko kontratoarekin.

23. 943 74 27 22 (16:00etatik aurrera)

Asteburu eta jai egunetan gosalindegian lan egiteko mutila behar da. **1T 943 74 02 41 (ofizina orduetan)**

Pertsona arduratsua behar da uztailean eta ekainean orduka haurrak zaintzeko. **ts 943 74 08 63 (Sorkunde, 20:30etatik aurrera)**

Ileapaindegian lan egiteko pertsona behar da. It **943 74 43 88 (lan orduetan)**

Kamareroa behar da. **943 74 42 65**

Etxebizitzak

Apartamentua alokatzen da Benidorm-en irailan. 15 egun edo hilabete osorako. tr **943 74 06 28**

♦ Etxea salgai Elgoibar erdialdean. Eraberritua, altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. a **661 42 60 77**

*Apartamentua alokatzen da Torrevisjan. Igerileku komunitarioa dauka. **s: 943 74 23 63**

Eixea alokatzen da uztailean Elgoibarrren (Ubitarten). Bikote batentzako aproposa. Etxe oso berritua, igogailuarekin. Tr **943 74 24 42**

*Pisua hartuko nuke alokairuan. 1r **943 03 03 21 (Mertxe)**

*Logela alokatzen da. **73 943 74 18 81**

*Bikote gazteak pisua hartuko luke alokairuan Elgoibar, eibar edo Ermuan. **t: 600 75 31 02**

*Apartamentua hartuko nuke alokairuan Benidorm-en abuztuan. tr **667 94 24 33**

Garajeak

*Garaje marraduna salgai Pista Bel-tzean. e **943 74 16 88**

Partikularrak

* Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasle-ri matematika klaseak emateko pertsona behar da. Uztailean, goizez. 13' **626 23 75 70**

• Uztailean DBHko Lengoaia eta Matematika klaseak emango nituzke goizez. tr **943 74 42 06**

• Lehen Hezkuntzako partikularrak emango nituzke uztailean goizez. Talde txikiak. tr **943 74 20 94 (Yolanda)**

Bestelakoak

* Ekainak 12an aterkia ahaztu nuen Madalako parkeko bankuan. Aurkitu duenak mesedez, Udaltzaingora eraman dezala. **zt 615 79 71 84**

Asteburu goizean jertse gorri bat galdu nuen Plaza Txikian edo goiko kalean. 13' **615 79 71 84**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Salerosketak

Karro-kanpiga salgai. Alpen Kreuzer Allure markakoa. Egoera onean. Hozkailua etabarrekin. 800 euro. **zt 943 81 63 92**

Rolling Stones taldea Bilbon, tribunatik ikusteko 3 sarrera salgai. 150 euro ba-koitza. 17' **653 77 53 33**

Edertasun saloia traspasatzen da El-goibarren. s **943 74 16 33 (20:00etatik aurrera)**

Boxer txakurkumeak salgai. Laster jaiotzekoak. Prezio onean. tr **660 72 34 28 (Eli)**

- Sukalderako plantxa salgai. 80x40 zm. Elektrikoa, erabilu gabea. **v 629 94 63 89**

15'ko ordenagailu pantaila salgai 100 eurotan, instalaziorako kableak barne. Egoera oso onean. Beste pantaila bat opari. **629 56 11 17 (19:00etatik aurrera)**

^ Ford Fiesta salgai. Egoera onean. tr **943 20 34 57**

* Ford Orion 1800, 16v salgai. 41.000 km, 11 urte. #s. **943 74 09 44**

*Trikitixa zero-sette markakoa salgai. 17' **943 74 25 89**

♦ Rossignol markako carvin eskiak salgai. Lau urte eta 1,70m. 120 euro. tr **652 71 59 11**

♦ Trikitixa salgai. Polverini txiki, 3-4 aho-tsetakoa. tr **676 15 74 57**

Opel Vectra DTI, 2.2 sport salgai. Txuria, 5 ate. 2002. urtekoa. Kapot elektriko, klimatizadorea, ordenadorea... urte beteko opel garantia. a **616 26 62 12**

Audi A4 salgai. 97koa. TDI, 110 cv. Zilar kolorekoa. Beti garajejan. tr **616 26 62 12**

* Ford Mondeo salgai. Egoera oso onean. Merke. **1R 943 74 11 08**


Ⓚ Karabana salgai. Katusa 3750. yr **943 74 21 64**

Seat toledo salgai. Egoera onean, pre-zio ona. SS-AK. tr **659 55 80 79**

Agurrak

*Zorionak **Nicolas Molina**, datorren ekainaren 26an zure eguna delako. Lagunen partez.


◆ Zorionak **Ion Arakistain**, ekainaren 25ean zure eguna delako. Osaba-izeben partez.



*Zer moduz pasatu zenuen zure urtebetetze eguna? Bihar berriz ospatuko dugu etxeko guztiok. Zorionak Mikel!



Zorionak Nora Sota, igandean, hilak 22 zure bataioa izango delako. Lehengusu guztien partez: Saray, Eider, Harkaitz, Eneritz eta Maider.



*Zorionak **Gorkari**, hilaren 22an 4 urte beteko dituelako. Aitaxo, amatxo eta anaia lkerren partez. Egun zoriontsua pasal



• Zorionak **Arkaitz**, hilaren 19an 13 urte bete zenituelako. Familiakoen, lehengusina eta bereziki, arreba Eneritz eta Maiderren partez.



• Zorionak **Mikel** zure nengo urtebetetzean. Gurasoen eta Nagoreren partez.



◆ Zorionak **Sara**, hilaren 23an 5 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta ahizpa Mariaren partez.



• Zorionak **amama Gregoria**. 90 muxu handi zure biloba eta birbiloben partez.



Zorionak **Josu**, larunbatean urtebete egingo duzulako. Familiakoen eta bereziki, Leireren partez.




• Zorionak **Ion!** Orain 18 urte dituzu eta espero dut ondo pasatuko duzula zure urtebetetze egunean. Besarkada handi bat zure arrebaren partez. Egun hanek etapa berri bati emango dio hasiera zure bizitzan. Ezingo gara egun horretan zurekin egon, baina gure bihotzak elkarrekin egongo dira. Belarritik tirakada handi bat eta muxu potolo bat. Gurasoen partez.



◆ Zorionak **Rober**, ekainaren 22an zure eguna delako. Naiara eta familiako guzien partez.



◆ Zorionak **Nerea**, hilaren 22an 2 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Juleneren partez.



• Zorionak **Ander Mugerzari**, hilaren 19an 4 urte bete zituelako. Ama, aita eta bereziki, Gorka gure xaguren partez. Aupa Real, aupa De Paula!



• Gure txiki biak, houndixak egiten ari dira. Zorionak **Unai eta Jon!**

Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ
20 Fernandez	Fernandez
21 Yudego	Yudego
22 Yudego	Yudego
23 Zabaleta	Zabaleta
24 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
25 Ibatiez	Ibañez
26 Bidasolo	Bidasolo
27 Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria

FARMAZIAK

ESCALA, Rekaide, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

22 igandea Izagirre

20 BARIXAKUA

19:00 "MAITATZEKO BERDINAK"
ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA
Kultur Etxean
Antolatzailea: Biluzik Zerbitzua
Ekainaren 29ra arte

22:30 KONTZERTUA

Itxaropena eta Ezoziko Ama Abesbatzak
elkarrekin
Herriko Antzokian



22 DOMEKIA

9:45 ARANTZAZURA
ERROMESALDIA
Autobusaren irteera: Sigmako errotondatik
Antolatzailea: Elgoibarko San Bartolome
parrokia

26 EGUENA

20:00 EUSKARA BIZIBERRITZEKO
PLANAREN AURKEZPENA
Kultur Etxean

27 BARIXAKUA

19:00 DIPLOMA BANAKETA
EKITALDIA
2. Batxilergoa eta Zikloak bukatu dituztenei
Herriko Antzokian

----- JAIAK

ALTZOLAKO SAN JUAN JAIAK

EKAINAK 21, ZAPATUA

23:00 Gora taldeak alaitutako dantzaldia

EKAINAK 22, DOMEKIA

19:00 Zezentxoak eta poniak

EKAINAK 23, ASTELEHENA

(San Juan bezperal)

14:30 Txapligu jaurtiketa eta kanpai hotsak

19:00 Meza Santua eta Salbea; santuari festetako
zapia jartzea

20:00 San Juan zuhaitza jartzea

22:30 San Juan Sua errekan

23:00 Aguirre taldeak alaitutako dantzaldia

EKAINAK 24, MARTITZENA

(San Juan Eguna)

06:00 Herriko portalean San Juan adarrak jartzea

11:00 Prozesioa eta Meza Santua, Elgoibarko pa-
rrokiako abesbatzak lagunduta

12:00 Trikitaliak

18:30 Pilota partidu ikusgarriak

20:00 Sorpresa handia

EKAINAK 25, EGUAZTENA

(San Juan Txiki Eguna)

12:30 Zinta joko eta bestelako herri jokoak

14:30 Herri bazkaria

17:00 Hiruki toldearen emanaldia

19:00 Zezentxoak eta poniak

21:00 Festen azken txupinazioa

EKAINAK 25, EGUAZTENA

18:00 Sardina jotea jubilatuetan

kaa

OMENALIMAK

Patxi Aldabaldetrecu-ri omenaldia

Makina Erremintaren Museoko Fundazioak eta IMHK Patxi Aldabaldetrecu omenduko dute datorren ekainaren 25ean, eguaztenean, Museoa bertan (12:00). Iazko martxoan hil zen Museoko lehen presidentea, "Agme" Debako fundatzailea eta Gerentea izan zena. Ondoren "Debako" ("Danobat Taldea"ren aurrekoa) taldeko Zuzendari Orokorra izan zen eta baita "Soraluze"ko eta "Ideko"ko gerentea ere. "Makinak eta Gizakia" liburuaren idazlea ere badugu. Omenaldian bere omenezko plaka bat bistaraziko du Alberto Ortueta Museoko Fundazioko egungo presidentea. Juan Jose Ibarretxe lehendakaria ere omenaldi ekitaldian egotea espero da. Ekitaldira gonbidapen bitartez joan daiteke.

IKASTETXEAK

Lanbide Heziketako ekitaldia

Heziketa Zikloak amaitzen dituzten ikasleen diploma banaketa ekitaldia datorren ekainaren 27an izango da, 18:30ean, IMHko areto nagusian. Bertan, Alberto Ortueta, AFMko zuzendari orokorra; Maribi Aguirregomezkorta, Elgoibarko alkatea; Iñaki Mugika, Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Zuzendaria; Mikel Arregui, IMHko Ikasketa buruak eta Joxean Egaña, IMHko zuzendariak parte hartuko dute.

JAIAK

SAN MIGELDARREN EGUNA
EKAINAK 22, DOMEKIA

11:00 Meza nagusia

Ondoren, salda eta txorizoa.

12:30 San Migeldarren arteko pilota partiduak

14:30 Lagunarteko bazkaria.

Bazkalostean, auzoko Ignacio Egaña (Bioin) eta Jose Mari Irusta (Uba Txiki) omenduko dituzte

\\(C)ndoren, dantzaldia Esteibarekin

WRKEZPENAK**Euskara Biziberritzeko Planaren urkezpena**

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Izkuntz Politikarako sailburuordetzarekin batera, Iskara biziberritzeko Plan nagusiaren (EBPN) berri emango die herritarrei. Plana ekainaren 16an, egunean, iluntzeko 20:00etan aurkeztuko da Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Bertan, Ma Actoria Agirregomezkorta, Elgoibarko alkatea; Airen Arrieta, Euskara batzordeburua, Patxi Ioenaga Hizkuntz Politikarako sailburuordea; Lore Leanizbarrutia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia izango dira, herritarrei xehetasunak azaltzeko.

ERAKUSKETAK**Debabarrenako Lurralde Plan Partziala**

Gipuzkoako EHNE Sindikatuak Lurralde Plan partzialaren inguruan ekainean zehar burutuko duen erakusketara eta informazio kanpaina abian jarri du. Hurrengo urteetan gure udalerrien torkizuna baldintzatuko duen dokumentua izaki, Debabarrenako Lurralde Plan Partziala onduan erakustea beharrezkoa ikusi dute, horu Administrazioak horretarako ahaleginik giten ez duela ikusita. Aurrerapen faseko legazioak egiteko epea bukatuta badago ere, arrantzitsua litzake herritarrek dokumentu hauek ztertzea, eta horrela haserako onarpena ematen aionerako, ahalik eta iritzi, iradokizun edota legazio gehienak jasotzea. Norbaitek dokumentu soa ikusi nahi izanez gero Elgoibarko OKAN (Oficina Comarcal Agraria) dauka aukera, lerkatu Plazako bigarren solairuan.

EUSKALTEGIAK

Uda Ikastaroa Debabe Euskaltegian
Debabe Udalen Euskaltegien Mankomunitateak jakinarazten du Uda Ikastaroko matrikula zabalik dagoela ekainaren 24ra arte. EGA azterketa prestatzeko ikastaro berezia eskaintzen du ekainaren 27tik uztailaren 24ra bitartean emango duen ikastaroan. Interesatuak pasatu udal euskaltegitik, Nafarroa Enparantza 2, edo deitu 943 74 27 31 telefonora. Bulego ordutegia, goizeko 9:00etatik 13:00etara.

Udako Euskara ikastaroak AEKn

AEK euskaltegiak urtero bezala aurtengo udarako ere antolatu ditu euskara ikastaroak. Ikastarook hiru helbururi begirakoak izango dira: euskalduntzeari buruzkoak, administrazio zein irakaskuntzari loturiko perfilen ingurukoak eta iraileko EGA azterketa prestatzekoak. Lehenengo biak uztailan izango dira eta hirugarrena uztailan zein irailean. Horretarako ekainaren 26a baino lehen izena eman behar da AEK euskaltegian, Plaza Txikia 3an edo 943 74 13 32 telefonora hots eginda. Ikasleei eta langabetuei matrikula erdia udalak ordainduko die.

OSPAKIZUNAK**48ko kintoak**

1948an jaiotako kintoek jaio zirenetik 55 urte pasa direla ospatuko dute zapatu honetan, ekainaren 21ean. 12:30etan elkartuko dira taldeko argazkia ateratzeko "Bola-tokian" (parrokia atzean). Ondoren luntxa izango dute Lanbroan eta bazkaria, berriz, Sigma jatetxean izango da 14:30ean.

**ELGOIBAR, Herriko Antzokian****"Cazador de sueños"**

21, zapatua: 19:30-22:15

22, domekia: 19:30-22:15

23, astelehena: 22:15

"Johnny English"

27, barixakua: 22:15

EIBAR**Unzaga****"Atraco a las 3 y 1/2"**

20, barixakua: 19:30-22:15

21, zapatua: 17:00-19:30-22:30

22, domekia: 17:00-19:30-22:30

23, astelehena: 19:30-22:15

24, martitzena: 19:30-22:15

25, eguaztena: 19:30-22:15

"Relaciones confidenciales"

20, barixakua: 19:30-22:15

21, zapatua: 19:30-22:15

22, domekia: 19:30-22:15

23, astelehena: 19:30-22:15

24, martitzena: 19:30

25, eguaztena: 19:30

"El libro de la selva"

21, zapatua: 17:00

22, domekia: 17:00

23, astelehena: 17:00

24, martitzena: 17:00

25, eguaztena: 17:00

ELGOIBARREN ez du gerta itzazkean emandien aldaketan erani.

**"Cazador de Sueños"****Zuzendaria: Lawrence Kasdan.****Antzezleak: Morgan Freeman, Thomas Jane, Jason Lee.**

Stephen King idazle arrakastatsuen "best seller" batean oinarritutako beldurrezko filmea da honakoa. Lau lagun gaztek adimen urriko pertsona bati laguntzeagatik botere bereziak eskuratuko dituzte trukean, besteek pentsatzen dutena asmatzeko gai baitira. Urte batzuk beranduago ehizara joateko elkartuko dira, baina ekaitzak basoan harrapatuko ditu. Bertan, estralurtar batzuekin egingo dute topo, eta nola ez, baita Estatu Batuetako militarrekin ere. Munduaren patu ankerra alda dezaketen bakarrak dira.

N

erretratu zaharra

OHARRA:

Erretratu zaharrak behar ditugu, daukazuenok eka rri BARREnera edo deitu 943 74 41 12 telefonora.



A

ste honetako erretratu zaharra Morkaiko Mendizale Elkartekoek laga digute. Argazkia 1954. urtean ateratakoa da. Egun honetan, Iru-Iturri mendiaren bigarren inaugurazioa ospatu zuten. Gogora ditzagun zein diren erretratuan azaltzen direnak.


Atzeko aldean, ezkerretik eskumara: Jesus Uncilla (t). G. Garmendia (f), Asensio Otegui, Sabin Astiazaran (11)eta Iñaki Konde (t).

Aurreko ilaran, ezkerretik eskumara: J.M. Ipiña (t), Angel Sopeña (t), Jose Rezola (t), Pilar Madariaga eta Pako Iriondo.




ESKERTZA

2003ko ekainaren 10ean, 77 urte zituela hil zen **MANUEL FREIRE MARTINEZ**en sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2003ko ekainaren 11n, 80 urte zituela hil zen **MAIREN CONDE ISASI-ISASMENDI**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Ira*leko **EGA** azterketa

Deialdi
itxian edo
irekian
egiteko aukera

Eskolak
uztailean
edo
irailean

Langabetuek eta
ikasleek
matrikula erdia,
udalaren laguntzaz



IzEna Eman EkainarEn 26a aurrEtik

aek

Euskaltegia

Plaza Txikia, 3

Tel.: 943 74 13 32

elgoibar@aeknet.net

Ekainaren 2letik aurrera 411) Zure kioskoan




Euskaldunok behar dugun **berria**

ETXEBIZITZAK ETA APARKALEKUAK

tly govn Yi

AITZOLA

(Bainuetxearen ondoan)



**126112,54 eurotik-aurrera
(20.000:000 pezetatik aurrera)**



FATXADA NAGUSIA

Argibide gehiago:

ANTT inmobiliaria

Tel.: 943 74 80 92

Antonio Arrillaga kalea, 1 behea

AUKERA EZIN HOBEA!!!